

Lanbide Arriskuen Prebentzioa
2004-2005 ikasturtea: aurreneko promozioa Euskadin

Prebentzioaren inguruko heziketaren oraina eta geroa



Presente y futuro de la formación en prevención

La Prevención de Riesgos Profesionales
Curso 2004-2005: primera promoción en el País Vasco

Lan Arriskuen Prebentzioko 31/95 Legeak, azaroaren 8koa, eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartu zuen 39/97 Errege-Dekretuak, urtarrilaren 17koa, arautu zuten lanbide arriskuen inguruko heziketaren egoera. Araudiak finkatzen zituen helburuekin bat etorriko zen heziketa egokiaren beharra ekarri zuen lege aldetiko ikuspegi berriak. Araudiak prebentzioa garatzeko behar ziren gaitasunak finkatu zituen, eta prebentzio jarduerari dagozkion funtzio bereziak burutzeko behar zen gutxieneko prestakuntza ezarri zuen, hiru mailatan sailkatua: oinarrikoa, 50 ordukoa; erdi mailakoa, 350 ordukoa, eta goi mailakoa, 600 ordukoa. Azken horrek honako espezialitate eta prebentzio-diziplinak hartzen ditu barne: laneko medikuntza, laneko segurtasuna, higiene industrial eta ergonomia eta psikosoziala aplikatua. Aipatu Errege-Dekretuan ageri den laneko medikuntzaren alorrekoak izan ezik, une hartan ez zeuden araututa heziketa mailai zegozkien titulazio akademiko edo profesionalak. Hortaz, eta hezkuntzaren alorrean eskumenak zituzten agintariek titulu zehatzak finkatu artean, eskatzen zen prestakuntzaren behin behineko akreditazio alternatiboaren aukera aurreikusi zen. Lanbide Arriskuen Prebentziarako Goi Mailako Teknikari titulua eta horri dagozkion gutxieneko ikasketak, 2001 urtera arte ez ziren sortu. Arazoaren 21eko aldizkari ofizialean argitaratu zen urriaren 26ko 1161/2001 Errege-Dekretuaren bitartez finkatu eta arautu zituen hain zuzen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak lanbide heziketako titulua eta titulazioa arautzen zuten xehetasunak.

Laneko Arriskuen Legea indarrean sartu zenez geroztik hainbat urte igaro badira ere, ohikoak dira hedabideetan lan istripuei buruzko izenburuak. Zentzu berean, ia egunerokoak dira halaber sektorekako eta lanpostukako ezbehar-tasei buruzko txosten eta artikulak. Errealitate kezagarria erakusten dute, eta erantzun berrien beharra azaleratzen dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzak, beste heziketa-eskaintza batzuen artean eta ondo egokitutako heziketa-eskaintza egin nahirik, 2003-2004 ikasturtean Lanbide Arriskuen Prebentziarako Goi Mailako Heziketa Zikloa jarri zuen abian Euskadiko Autonomia Erkidegoan, 1161/2001 Errege-Dekretuak sustatu zuen prebentzioaren alorreko heziketaren berregiturazeari erantzun nahirik. Dekretuak finkatu zituen heziketa-eskaintza horren baitan zein izan behar ziren erdi mailako teknikariei zegozkien egitekoak bete ahal izateko gutxieneko irakaskuntzak.

Borondate horrek eta, besteak beste, eraikuntza sektoreak eginiko eskakizunek, prospekzio txiki bat egitera eraman zuten, ustezko eskari potentziala bideratzeko eta heziketa-eskaintza egokitzeko. Hiru lurraldean berezitasunak aintzat harturik, lurralde bakoitzeko zentro bana sortzea erabaki zen.



La situación de la formación en prevención de riesgos laborales se reguló a partir de la Ley 31/95, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y del Real Decreto 39/97, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención. La nueva concepción legal planteó la necesidad de una formación adecuada y ajustada a los objetivos que promulgaba la nueva normativa. En el Reglamento se determinaron las capacidades o aptitudes adecuadas para desarrollar la prevención y se estableció la formación mínima requerida para el desempeño de las funciones propias de la actividad preventiva, que se agrupa en tres niveles: básico con 50 horas de formación, intermedio con 350 horas y superior con 600 horas, en este último se incluyen las especialidades y disciplinas preventivas de medicina del trabajo, seguridad en el trabajo, higiene industrial y ergonomía y psicología aplicada. La inexistencia en aquel momento de titulaciones académicas o profesionales correspondientes a los niveles formativos reglados, salvo en lo relativo a la especialidad de medicina del trabajo, que aparecen en el Real Decreto citado, contempló la posibilidad transitoria de acreditación alternativa de la formación exigida, hasta tanto la autoridad competente en materia educativa no determinase las titulaciones correspondientes. No es hasta el año 2001 en que el Real Decreto 1161/2001, de 26 de octubre, se establece el título de Técnico Superior en Prevención de Riesgos Profesionales y las correspondientes enseñanzas mínimas. BOE de 21 de noviembre donde el Ministerio de Educación y Ciencia establece y regula este título de formación profesional y los elementos de ordenación del mismo.

A pesar de haber transcurrido varios años de la entrada en vigor de la ley de prevención de riesgos laborales son frecuentes los titulares en la prensa sobre accidentes laborales. En este mismo sentido, en la prensa son casi cotidianos los diversos artículos e informes con diferentes índices de siniestralidad por sectores y puestos de trabajo que manifiestan una realidad preocupante y la búsqueda de nuevas respuestas.

La Dirección de Formación Profesional del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, entre otras propuestas formativas y buscando ofertas educativas ajustadas impulso durante el curso académico 2003-2004 la puesta en marcha del Ciclo Formativo Superior de Prevención en Riesgos Profesionales en la Comunidad Autónoma, en respuesta a la reestructuración de la formación en materia de prevención impulsada por el Real Decreto 1161/2001 que establecía dentro de esta oferta educativa las correspondientes enseñanzas mínimas para el desempeño de las funciones reservadas a los Técnicos de nivel intermedio.

Esa voluntad unida a las diferentes demandas del sector de la construcción, entre otros, llevaron a realizar una pequeña prospección para canalizar la

1. LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLO BERRI BAT: LAPKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Bi urte igaro direnean, ikasturte honen amaieran alegia, Lanbide Arriskuen Prebentzioarako Goi Mailako Teknikarien aurreneko promozioa irtingo da Lanbide Heziketako hiru ikastetxe horietatik. Urrats berri bat izango da prebentzioaren kulturaren hedapenean eta sentsibilizazioan nahiz ikasgelatik irten ondoren errealtatearekin bat egitean eta laneratze egokienaren bilaketan. Une honetan, Lantegiko Heziketari dagokion modulua egiten ari dira ikasleak.

Lanbide Arriskuen Prebentzioarako Goi Mailako heziketa zikloa bi ikasturtetan banatutako 2.000 irakastordutan ematen diren hamaika modulutan egituratuta dago.

Zentzu horretan, hamar moduluko zikloan honako gai hauetan sakontzen da: "prebentzioaren kudeaketa", "seguritasun-baldintzetatik eratorritako arriskuak", "ingurumen-arriskuak eta arrisku fisikoak", "lan-antolaketatik eta lan-kargatik eratorritako arriskuak", "larraldiak", "lan-inguruarekiko harremanak", "lan prestakuntza eta orientazioa", "hizkera tekniko" edo "kalitatea eta etengabeko hobekuntza".

Horrez gain, heziketa-eskaintza "Lantokiko Heziketa" modulua osatzen du. 400 orduko modulu horretan praktikak egiten dira enpresetan.

Gogoan izan behar da, gainera, berregituraketa akademikoak "Lanbide Arriskuen Prebentzioarako Erdi Mailako Teknikari" titulua desagertzea ekarri duela. Titulazio hori Administrazioak baimendutako ikastetxe pribatu eta publikoetan irakasten eta egiaztatzen zen.

posible demanda potencial y ajustar la oferta educativa. Atendiendo la singularidad de cada uno de los tres territorios se planteó un centro por provincia.

1. UN NUEVO CICLO DE FORMACIÓN PROFESIONAL: TÉCNICO SUPERIOR EN PRP

Dos años después, a finales de este curso, saldrán en los tres centros de Formación Profesional la primera promoción de Técnicos Superiores en Prevención de Riesgos Profesionales. Esto supone un nuevo paso en la difusión y sensibilización de la cultura de la prevención y la necesidad de contraste con la realidad tras el abandono las aulas y la búsqueda de la más óptima inserción laboral. En estos momentos el alumnado está realizando el módulo correspondiente a Formación en Centro de Trabajo.

El ciclo formativo de Grado Superior en Prevención de Riesgos Profesionales está estructurado en once módulos que se imparten en 2.000 horas lectivas distribuidas a lo largo de los dos cursos académicos.

En este sentido, el ciclo que consta de 10 módulos que profundizan en materias como la "gestión de la prevención", los "riesgos derivados de las condiciones de seguridad", los "riesgos físicos y ambientales", "los riesgos químicos y biológicos", la "prevención de riesgos derivados de la organización y la carga de trabajo", las "emergencias", las "relaciones en el entorno de trabajo", la "formación y orientación laboral", el "idioma técnico", o la "calidad y mejora continua".

Además, esta oferta formativa se completa con la "Formación en el Centro de Trabajo", módulo de 400 horas como periodo de prácticas en la empresa.

Hay que recordar además, que esta reestructuración académica ha traído consigo la eliminación del título de "Técnico en Prevención de Riesgos Laborales de nivel intermedio" que se venía impartiendo y acreditando en los centros formativos privados y

Prestakuntza bertsua bermatzen badu ere, "Lanbide Arriskuen Prebentzioarako goi mailako gradua"ri dagokion heziketa-modulu berriak aurrekoa ordezkatzeko du, baina ezin zaio inolaz ere aurreko "erdi mailakoaren" balio bera eman; ez ordutegiaren aldetik -350 orduko prestakuntza, egungo 2.000 orduen aldean-, ezta egiaztatzen diren gaitasunen aldetik ere. Honakoak dira, hain zuzen, gaitasun horiek:

1. Enpresako arriskuen prebentzioarako politikaren garapenean eta ezarpenean parte hartzea.
2. Lan arriskuen inguruko araudi orokor zein berezia betetzea sustatzeko eta bultzatzeko abiarazten diren jarduerak burutzeko.
3. Enpresako langileei zuzendutako informazio, prestakuntza eta motibazio jarduerak burutzeko.
4. Ekoizpen-prozesuei dagozkien arrisku orokor eta espezifikoak identifikatzeko eta kontrolatzeko neurriak ezartzea.
5. Enpresan arduraz jokatzeko uneoro, prebentzio-zerbitzuekin zein arriskuen prebentzioaren alorrean eskumenak dituzten erakundeekin lankidetzan.

Lanbide Arriskuen Prebentzioarako Goi Mailako Teknikaria enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzu bateko kide izan daiteke, zerbitzu mankomunatu baten kide zein, arriskuak deusezteko, murrizteko edo saihesteko neurriak proposatzeko arrisku-iturri izan daitezkeen jarduerak kontrolatuko dituen eta aholku emango duen ekoizpen-prozesutik at dagoen prebentzio-zerbitzu bateko kide.

Lanbide Arriskuen Prebentzioarako Goi Mailako Teknikaria, halaber, enpresako eta establezimenduko arriskuen prebentzio zein babes jardueraz arduratu daiteke, enpresaburuak horretarako izendatuta.

2. ESPERIENTZIA BANA LURRALDEKO, HIRU IKASTETXE: EASO POLITEKNIKOA GLHBI, VITORIA-GASTEIZKO ERAIKUNTZA INSTITUTUA ETA BIZKAIKO ERAIKUNTZA

2.1 IEFPS EASO POLITEKNIKOA

2002-2003 ikasturtean ikastetxeak bere eskaintza berrikusi eta heziketa- eskaintza malguagoa eta berritzailea egin zuen, lehendik zegoena beste alor batzuetara hedatuz. Lan-helburu garrantzitsu bilakatu ziren ikastetxeak lehendik zituen titulazioak osatzea eta horiei itzulgarritasun handiagoa ematea; irakasletan zein departamentu desberdinetan -besteak beste, mekanika, lanerako prestakuntza eta orientazioa edo ingurune-kimika- zituzten baliabideak optimizatzea edota ikastetxeko beste lanbide arlo batzuetako espazio eta tailerrak (fisika eta kimika laborategiak, elektrizitate eta zurgintza tailerrak...) prebentzio praktikak egiteko egokitu eta moldatzea.

Hasieratik, ikastetxeko bi irakasle arduratu ziren zikloa abian jartzea dinamizatzeaz. Hainbat hilabetez, bata 600 orduko prestakuntza burutu zuen Prebentzio Goi Mailako Teknikari bilakatzeko, eta erdi mailako prestakuntza burutu zuen besteak, 350 orduetan. Biek ere prebentzioaren auditoriari emandako 30 orduko ikastaroa egin zuten.

EASO GLHBIan, heziketa-eskaintza hau ele bitan egin zuten aurreneko urtean 20 ikasleko taldea osatu zen gaztelaniaz, eta 15 matrikula egin ziren euskarazko taldean.

Une honetan, 2004-2005 ikasturtean, aurreneko mailan 19 ikasle daude gaztelaniazko taldean eta 15 euskarazkoan.

públicos autorizados a tal efecto por la Administración. Aunque otorga competencias similares, el nuevo módulo formativo de "grado superior en Prevención de Riesgos Profesionales", sustituye al anterior pero difícilmente puede ser equivalente al anterior "nivel intermedio" ni desde el horario: 350 horas de formación con las 2000 horas actuales ni en cuanto a las capacidades que acreditan. Siendo estas las siguientes:

1. Participar en la implantación y desarrollo de la política de prevención de riesgos en la empresa.
2. Realizar actividades destinadas a impulsar y promocionar el cumplimiento de la normativa general y específica de prevención de riesgos laborales.
3. Realizar actividades de información, formación y motivación destinadas a los trabajadores de la empresa.
4. Aplicar las medidas de identificación y control de los riesgos específicos y generales que afecten a los procesos productivos.
5. Comportarse en todo momento de forma responsable en la empresa, colaborando con los servicios de prevención y entidades con competencias en prevención de riesgos.

El Técnico Superior en Prevención de Riesgos Profesionales podrá formar parte de un servicio de prevención ajeno a la empresa, de un servicio de prevención propio e independiente del proceso productivo, que asesorará y controlará las actuaciones que originen riesgos proponiendo medidas para eliminar, reducir y evitar riesgos.

Asimismo el Técnico Superior en Prevención de Riesgos profesionales podrá desempeñar sus funciones como trabajador designado por el empresario para ocuparse de actividades de protección y prevención de riesgos profesionales de la empresa y establecimiento.

2. UNA EXPERIENCIA EN CADA TERRITORIO 3 CENTROS: IEFPS EASO POLITEKNIKOA, INSTITUTO DE CONSTRUCCIÓN DE VITORIA E INSTITUTO DE CONSTRUCCIÓN DE BIZKAIA

2.1 IEFPS EASO POLITEKNIKOA

Durante el curso 2002-2003, el centro revisó y planteó una oferta educativa más flexible, innovadora y que ampliase a otros ámbitos la ya existente. Completar y dar mayor reversibilidad a otras titulaciones que el centro disponía y optimizar recursos propios tanto de profesorado de diferentes departamentos: mecánica, formación y orientación laboral o química ambiental entre otros, y o adaptar y readecuar espacios o talleres de otras familias profesionales del centro como el laboratorio de física y química o talleres de electricidad o madera para poder realizar prácticas de prevención se constituyó en un objetivo de trabajo importante.

Desde el inicio se contó con dos profesores del centro que dinamizaron la puesta en marcha del ciclo. Durante los meses de preparación se realizó la formación de Técnico Superior en Prevención de 600 horas por uno y la formación intermedia de 350 por otro. Ambos realizaron un curso de auditoría en Prevención de 30 horas.

En el IEFPS EASO, en el primer año que se puso en marcha esta oferta educativa en bilingüe completó el grupo de 20 alumnos de castellano, y se formalizaron 15 matriculaciones en el grupo de euskera.

2.2 VITORIA-GASTEIZKO ERAIKUNTZA BHI

Bi ikuspegitik azpimarra daiteke sektoreak duen eskari handia:

- Aurreneko urtean 37 ikasle matriculatu ziren (19 eta 18 laguneko talde bana), eta bigarren 34 (18 eta 16 laguneko talde bana). Hauxe da Vitoria-Gasteizko Eraikuntza Institutuan matriculatu kopuru handiena duen heziketa zikloa, baita ikasturte bakoitzeko bi talde dituen bakarra ere.
- Lantokiko Heziketan gure ikasleek izan duten harrera ona. Ikasleek lan-merkatuan izango zuten harrerari buruzko zalantzak genituen aurten baina, Lantokiko Heziketara ikasle asko joan badira ere (27), ezin izan dugu eskaria asebetu, eta hainbat enpresa ikaslerik gabe gelditu dira.

Azkenik, Lanbide Arriskuen Prebentziorako Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleen %70 inguru neskek direla azpimarratu behar da.

2.3 BIZKAIKO ERAIKUNTZA BHI

Gure ikastetxean Eraikuntza eta Obra Zibila lanbide arloari dagokion erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloak eskaintzen dira. Horrez gain, EASO POLITEKNIKOA GLHBI eta VITORIA-GASTEIZKO ERAIKUNTZA BHIan bezala, 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian Produzko-zerbitzuak eta Mantenimendua lanbide arloari dagokion Lanbide Arriskuen Prebentzioaren inguruko goi mailako zikloa.

Lan-itxaropen berriak sorrarazi ditu ziklo honek eta, berria izan arren, iaz 19 ikasle matriculatu ziren. Ikasturtean zehar izan ziren gorabeheren ondorioz, ordea, 2004-2005 ikasturtean ikasle matriculatu ziren bigarren mailan. 2004-2005 ikasturteko matriculazio berriari dagokionez, 25 ikaslekoa izan da. Martxoaz geroztik 2. mailako ikasleak Lantokiko Heziketa modulua egiten ari dira eta, oraingoz, gustura daude enpresak zein ikasleak.

2005-2006 ikasturtean A erdua ez ezik Lanbide Arriskuen Prebentzioari dagokion zikloan D erdua ere eskainiko dugu, eta euskarazko zikloa irekitzea espero dugu, hizkuntza horretan egin baitituzte ikasketak egungo ikasleen %60k.

3. LANERATZEA ETA JARDUTE EGOKIA

Profesional berrion laneratzean datza hurrengo erronka. Prebentzioaren alorrean geroz eta gehiago eskatzen direnez kanpo zerbitzuak, eta 500 langiletik

Actualmente, curso 2004-2005, en el primer curso hay 19 alumnos en el grupo de castellano y 15 en el de euskera.

2.2. IES CONSTRUCCION VITORIA-GASTEIZ BHI

Resaltar la gran demanda existente en el sector desde dos puntos de vista:

- El número de alumnos matriculados el primer año, 37 (dos grupos de 19 y 18 personas) y el segundo año, 34 (dos grupos de 18 y 16 personas). Siendo el ciclo formativo que más matriculación tiene en el Instituto de la Construcción de Vitoria-Gasteiz y el único que tiene dos grupos en cada curso.

- La gran aceptación que han tenido nuestros alumnos en FCT. Este año que teníamos muchas dudas sobre cual sería la aceptación de estos titulados en el mercado laboral y a pesar del alto número de alumnos que han ido a FCT (27) no hemos podido cubrir toda la demanda y se han quedado empresas sin alumnos.

Por último, indicar que alrededor del 70% del alumnado del Ciclo Formativo de Grado Superior en Prevención de Riesgos Profesionales es femenino

2.2. IES CONSTRUCCIÓN BIZKAIA BHI

En nuestro instituto se imparten ciclos formativos de grado medio y de grado superior, pertenecientes a la Familia Profesional de Edificación y Obra Civil, y además, al igual que en los otros dos centros IEFPS EASO POLITEKNIKOA e IES CONSTRUCCIÓN VITORIA, el ciclo de grado superior, Prevención de Riesgos Profesionales, perteneciente a la Familia Profesional, Mantenimiento y Servicios a la Producción, se inició en el curso 2003-2004.

Este es un ciclo que ha creado nuevas expectativas laborales y a pesar de su novedad, el curso pasado contamos con una matriculación de 19 alumnos. Sin embargo a lo largo del mismo, diferentes circunstancias hicieron que en este curso 2004-2005, hubiera 9 alumnos matriculados en el 2º año. En lo que respecta a alumnos de nueva matriculación este curso académico 2004-2005 han sido 25. Desde el mes de marzo nuestros alumnos de 2º, están realizando el módulo, Formación en Centro de Trabajo (FCT) y hasta el momento la satisfacción es compartida por alumnos y empresas.

Para el próximo curso 2005-2006, además de modelo A, ofertamos este ciclo de Prevención en Riesgos Profesionales, en modelo D y esperamos abrir el ciclo en euskera, ya que el 60% de nuestros alumnos actuales han cursado sus estudios en esta lengua.

3. LA INSERCIÓN LABORAL Y LAS BUENAS PRÁCTICAS

La inserción laboral de estos nuevos profesionales constituye el próximo desafío. Desde la demanda creciente de los Servicios de Prevención Ajenos, la necesidad de fortalecer y reforzar en empresas de más de 500 trabajadores en el Servicio de prevención propio, todos ellos constituyen ámbitos y retos en estos primeros momentos.

El 70 % de las empresas que están colaborando en la FCT de los alumnos son servicios de prevención

gorako enpresetan prebentzio zerbitzu propioak indartu eta suspertu behar direnez, aurreneko momentu hauetan eremu horiek dira gure alor nagusiak eta gure erronka.

Ikasleen Lantegiko Heziketan esku hartzen ari diren enpresen %70 kanpo prebentzio zerbitzuak dira, zaila baita ikasleek praktikak zuzenean enpresetan egitea, zeren eta ehun produktiboaren ezaugarrien ondorioz - batik bat, enpresa txikiak eta ertainak dira- ez baitago prebentzio zerbitzu propioak daukan enpresa askorik.

Hala eta guztiz ere, gaur egun enpresei zaila egiten zaie bertako langile bati honelako heziketa maila ematea, titulua lortzeko 2.000 irakastordu behar baitira.

Araudi berria indarrean sartu aurretik, enpresa txiki eta ertainek euren langileak bidaltzen zituzten erdi mailako ikastaro zaharra egitera, posible gertatzen baitzitzaie, artean, kostua zein lanpostua hutsik gelditzen zen denboraldia euren gain hartzea.

4. ERRONKA BERRIAK

Baina, gauza guztien gaineratik, prebentzioaren inguruko kulturaren kontsolidaziorako ez da nahikoa ikastetxeek heziketaren alorrean egiten duten ahalegina, eta beharrezkoa da baliabide politiko, ekonomiko eta sozialak

elkartzea eta batera erabiltzea. Legedia, horren garapena eta betetzea, batetik; lan-agintaritzaren ikuskaritza eta kontrola, bestetik, eta enpresaren lidergoa batera ibili behar dira elkarrizketa sozialarekin eta eragile guztien arteko lankidetzarekin, langileen partaidetza aktibo eta kritikoa ahaztu gabe.

Ahaleginak batu behar dira, prebentzioaren alorreko profesionalak lan-ildo eta estrategiak finka ditzan.

Enpresaburuak legez dagokion betekizunari -langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea, alegia- behar bezainbesteko garantiaz erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da prebentzioa enpresaren jardura guztietan eta maila hierarkiko denetan txertatzea.

Ehun produktiboak pairatzen dituen etengabeko aldaketen ondorioz, prebentzioaren ikuspegia ere etengabeko berrikuspen eta egokitzapen prozesuan dago. Horrenbestez, ikastetxeek sintonian egon behar dugu aldaketa horiekin. Teknologia eta lan egiteko modu berrien ezarpenak ezagutza-eredu berriak daramatza ikasten duten organizazioetara, eta gestio ereduak ere aldatzen doaz: mini-enpresen gestioa, gaitasunen gestioa, pertsonen gestioa-investors in people, besteak beste. Ekonomiaren tertziarizazioa, merkatu berriak aurkitu beharra edo inmigrazioaren eta globalizazioaren inguruko fenomenoak prebentzioaren zenbait alorri eragiten dieten eta aldaketak ezartzen dizkieten alderdiak dira.



ajenos, ya que resulta difícil que los alumnos hagan prácticas directamente en las empresas porque por la propia naturaleza del tejido productivo, constituido en su mayoría por la pequeña y mediana empresa, no hay muchas que tengan su propio servicio de prevención.

Sin embargo, a día de hoy, para las empresas es complicado que un empleado pueda acceder a este nivel de formación por las 2000 horas de duración de esta titulación.

Hasta la entrada en vigor de la nueva normativa, las pequeñas y medianas empresas optaban por enviar personal de su plantilla a realizar el antiguo curso de "nivel intermedio" con un coste de dinero y tiempo de ausencia del puesto de trabajo todavía asumibles.

4. NUEVOS RETOS

Pero por encima de todo, la consolidación de una cultura preventiva tiene que llegar no sólo del esfuerzo que se realiza desde la formación de los centros sino mediante la combinación de instrumentos políticos, económicos y sociales. La legislación, su desarrollo y cumplimentación; por un lado, la supervisión y control de la Autoridad Laboral, por otro lado, y el liderazgo de la empresa han de ir unido al diálogo social y la colaboración de todos los agentes unido a la participación asertiva y crítica de los trabajadores.

Se tienen que aunar esfuerzos para que el profesional prevencionista marque y determine las líneas y estrategias de trabajo.

La necesidad de integrar la prevención en todas las actividades de la empresa y en todos los niveles jerárquicos es imprescindible para que el empresario pueda responder con garantía a la obligación que le corresponde por ley, la de garantizar la seguridad y la salud de los trabajadores.

Los constantes cambios a los que se ve sometido el tejido productivo hacen que el enfoque de la prevención se encuentre, igualmente, en constante proceso de revisión y adaptación. Los centros hemos de estar en sintonía, ciertamente, la introducción de nuevas tecnologías y nuevas formas de trabajar determinan nuevos modelos de conocimiento en organizaciones que aprenden que dan lugar a innovaciones en los modelos de gestión: gestión de miniempresas, gestión de competencias, gestión de personas-investors in people-, entre otros. Desde la terciarización de la economía, la búsqueda de nuevos mercados o el fenómeno de la inmigración y la globalización son aspectos que afectan y modifican ámbitos de la prevención.